

## **Elkarteak**

Gure proiektua bakarrik aurrera ateratzea ezinezkoa denez, ezinbestekoa izango da beste enpresa batzuekin kolaborazioa edukitzea. Gure produktuen salmentaraino iristea posible izan dadin, laguntza honetaz baliatuko gara produktua hornitu, banatu eta saldu ahal izateko. Enpresaren xedea osotasunean aurrera eramateko, hauetaz gain, beste konpainia batzuekin kontaktatuko dugu.

Hasteko, taldearen lokal propioa beharko dugu, bertan, hornitzaileek ekartzen dizkiguten materialak gorde eta makina bidez produktua egingo dugu. UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) urretxuar agentziak eskeintzen dituen lokaletako bat alokatuko dugu. Hilean, 30€ kostua izanik argi indarra, gasa, interneta, ura eta alokairua eskaintzen dute.

Horrez gain, Amazonek eskeintzen duen baliabidea erabiltzea ezinbestekoa da, hasiera batean gure produktua ez da oso saldua izango, izan ere, produktuak ez du inolako famarik izango, baina denbora igaro ahala eta gure marketinak arrakasta minimo bat edukitzen duenean gure produktua Amazonen saltzea ideia oso ona gertatu liteke.

Bestalde, webgunea abiatzeko CodeSyntax enpresaren zerbitzuak kontratatuko ditugu. Bezeroekin harremanetan jartzeko modu egoki bat izango da eta produktua saltzeko metodo oso egoki bat izango da.